

ZAINTZEN

Mikel Montejo, Maider Segura, Ainhoa Vigo eta Lexuri Uriarte



SARRERA

Aho-hortzen higieneko bigarren urteko ikasle-talde bat gara, Gasteizko Francisco de Vitoria institutuan, Araban.

Gure proiektuarekin hasi genuenean, gure enpresa zer egingo zuen erabaki behar genuen, eta horretarako egunez egun ikusten genituen arazo sozialen brainstorming bat egitea erabaki genuen, adibidez, denbora edo diru faltagatik modu osasungarrian jan ezin duten pertsonak eta honen ondorioz, haien osasunari eragiten diena modu kaltegarri batean. Baina ideia ezberdinen artean eztabaidatu ondoren, Zaintzen sortzea erabaki genuen.

Gure enpresa sortzen hasi aurretik Canvas metodoaren bidez egitea proposatu ziguten, ez genekiena zer zen, baina azkenean ikasi genuen Canvas gure etorkizuneko enpresaren ezaugarri garrantzitsuenak kudeatzeko eta ezagutzeko modu ona zela, eta, aldi berean, ezaugarri horiek guztiak elkarren artean erlazionatzen zirela.

Eta, azkenean, gure ideia izanda eta Canvas metodoaren bidez lan egin ondoren, Zaintzen sortzen hasi ginen, hau da, haurrei, hirugarren adinekoei edo desgaitasunak dituzten pertsoneri epe laburreko zaintza-zerbitzuak eskaintzen dizkien app bat. Adibidez, haur baten gurasoek ezin badute eskolara joan bere haurra eskolatik jasotsera, lan egin behar dutelako, zerbitzu hori eskatu ahal izango dute zaintzaile batek bere semea eskolatik jaso eta etxera eraman dezan. Gainera, app honetan, bezeroek zerbitzuen denbora aukeratu ahal izango dute, baita horiek egingo dituen zaintzailea ere. Azkenik, esan behar da app hau batez ere baliabide gutxiko familiei zuzenduta dagoela, eta, beraz, emandako zerbitzuak ez dituzte familiek ordaindu beharko, Estatuak ordaindu baizik. Horrekin, gure zerbitzuak behar dituzten familiei lagundu nahi diegu, baita lanpostu gehiago sortu ere.